



Udaletxia 1905. urtian.

Eusebio Atxa alkatea zala, Udaletxiaren urte horretako diru sarrerak ta gastuak 15.466 pezetakuak izan zian.

Erretratuan ikusi leikenez, behekaldian bi bentana zi txuan. Ezkerrekua kartzelia zan. Honen ostian, atzekaldetik sartuta, mataderua. Mazu batekin kolpe bat emonda, bertan akabatzen ta sangratzen zan bihar zan beste ganau.

Eskumako bentania aguazillak egoten zian lekukua zan. Aguazillak euren erremintxak Zubiaurrera emoten zeban gela baten gordetzen zitxuezen. Gela berori luzeruan herriko alhondiga moduan erabili izan zan. Gerra ostian bertan par-

titzen zan rasionamentua.

Eurixa eitxen zebanian herriko umiak peoria erabiltzen zeben olgetan eitxeko. "Txindurrian", "tortoloseara", "soka-saltuan" ekiñaldixa ein da gero, aintxitxiketan urten bihar aguazillak orrua baten urtetzen zebanian.

1982. urteko urtarrillan bota zan edifizio hau, behin bai-ño gehixaotan konpondu bihar izan zan. Azkenengoz 1940. urtian. Orduan, Jose Elorzaren agindupian, pisu bat gehixao altxatiaz batera, fatxadako harrixa garbitxu ta musika bandiantzako kiosko bat etara jakon lehenengo pisuan.

TXALAPARTA Taberna

PATXI Taberna

Bar EGO-GAIN

Bar AITZGORRI

JAI ALAI Taberna



HERGA Kafetegia

Bar GREDOS

SIRIMIRI

BRASILEÑA

GANBARA Bar

ZARAUZTARRA Jatetxea